



Efoma.—Batikano'tik.

Batikano'n Guadalupe'ko Ama' ren egunean egin zan eleizkizuna benetan edera izan zan. Emeretzi kardenal, 50 Gotzain eta, latefi ofdelari gustiekaz batean izugafizko gizostea bildu zan. Guadalupe'ko Gotzainak yaupa abestu eban, Aita Santuak amayeran onspena emon eban.

—Bernartetxo Zubiru Deuna' ren eleizkizunetara, yonan ziran 5.000 bidezti pantzetafak Aita Santua ikertu dabe. Euron artean yoyazan 25 Gotzain, eta Lourdes Bazkuna'ko 40 Osagile. Aita Santua'k eleizkizun zoragafiaren edertasuna gomutau ondoren, Bernartetxo'ren goralbena egin eutsen, zorionez bere deun iragartzea, Sortzez garbiaren agerkundetik irurogeta amaboskafan urtean izan dala esanaz.

—Baita Mexi'ko'tik eldutako bidezkunde batek, bertako lau bost Gotzain buru dituala, Aita Santua ikertu dau. Bezua edefak eskini dautsoez, mexikotar ertikeraz egiñak. Aita Santua'k, Andra Miren Mexiko'ko Zaindarien omenez egin zan eleizkizunean, Mexiko, zintso ta ziñopagandik iñoz baño ufego egoala begitandu yakola esan eutsen. Gustiei euren abefira biurten diranean, bere onspen berezia eroateko. Etorkizuna Yaungoikoaren eskuetan dagola, argi dago. Orain arte ondo ikusi da gizonakandik zer itxaron leiken eta, Yauna'ren ontasunean uste osoa ipinteko esan eutsen.

—Batikano'ko Eleizaren tofe ta aufe aldearen argitze bafia, egunokaz amaitu dabe, Oin tximistargiz izango da. Gizoste andia begira egoan eta ain afigafia zala ikusirik euren poza txaloka agertu eban.

Eukaristi - Batzafaren Batzordea.

Heylen agurgafia, Namur'ko Gotzaina, buru dabela, Eukaristi Batzar Orokofen Batzordea egun oneitan Efoma'n batu da. Amabi latefietatik befogei ordelari eldu dira, Buenos Aires'ko Batzordeari, an datofen urtean egingo dan Batzafetaz entzuteko.

Batzordeak erabagi eban, Buenos Aires'koaren ufengo, 1936'n izango dan Batzafa, Manila'n ospatu daitela. Gero Aita Santua ikertu eban, eta egiten daben lanagaitik poz andia agertuaz onetsi zituan.

Bidezkundeak.

Aita Santua ikertu dabenen artean bidezkunde oneik izan dira. Madrid ta Barcelona'tik 150 lagun, Bernardetxo Deunaren yayetara yonak. España'ko katolikoen zat itxaropen aldia eldu dala esan dautse, baño bakoitzak, Yauna'ri eskatuaz, asmo bakar ta biotz zabalaz lan egiteko. Beljika'tik 500 lagun Van Roey kardenala buru dabela; 200 bidezti ingalandar lau taldetan eldutakoak, beste iru taldetan Olanda'tik 150; talde bitan 200 alemandar; 18 yaupari bafi;

ño 110 geyago ziran, gustiz 3.179. Lekaideak ostera 10 aufeko urtean baño gitxiago gustiz, 1.639.

Lekaide eskintza ospetsua.

Sorkunde egunean, La-Pierre -qui-Vire'ko benedita'ren lekaretxean, lenengo lekaide eskintzak egin zituan Pefier, Suiza'ko gizon ospetsuak. Besson agurgafia, Lausanne'ko Gotzainak eskintzak artu eutsozan. Pefier yauna lekaide sartu aufetik, Fribourg'oko latefi-lendakari, Suiza'ko biga'ren lendakari, Suizar katoliko alderdiaren buru ta Ginebra'ko Izkiu-uritze Batzordeko buru izan zan, eta oin *anai Nikola...* baka'rik da, eta ez da gitxiago, askok alan uste izan afen!

Parantze'ko indar-kirol bazkun katolikotafak.

Egun oneitan egin dabe bazkunok urteroko batzafa Paris'en. Lenen, aurten il diranen alde yaupa bat esan zan. Alderdi gustietako ordelari ta yaupari asko bertara eldu ziran. Alkartasunak, 68 goterki -alkartze dituz, eta 2 870 bazkun bafuan. Igaro dan urtean, egin diran batzafetan tarteko izan diranak 150.000 bazkidera eldu dira. Bazkun oneitan gorputz-iñarkunez gañera, Kistar lkastian sustafa daben asiera ta ekandu onak irakasten yakez, eta onetantxe alegin gustia egin bear dala izlari batek esan dautse.

Gabon gabaz, Belen'ko kanpai eta eleizkizunak entzun!...

Iges Ipar Amerika'ko bazkun batek Gabon egunean Belen'go kanpai-otsa ifatizkin edo radio bidez, entzun eragitea nai izan eban, baño bertako baipena izan afen, Ingalanda'ko ordelariarena ezin lortu izan eban. Aurten ingalandar bazkun batek ori eskatu dau eta lortu be bai. Beraz egun ofetan bederatzietatik erdietara, ango amabietan, Yesu-Kisto yayo zan tokiko kanpai eta abestiak entzun al izango dira. Pantzeka-tafakaz itunduta, Jesus yayo zan tokiko eleizari dautsen Kate-riñe deunan eleizan gaberdiko otuitzak asi aufetik, Belen'etik Kairo'ra ta Kairo'tik London'era kanpai soñua ufutizkiñez eroango da, ta andik ifatizkiñez lurbira gustira zabaltzeko.

Asmo begikoa benetan, eta Belen'go kanpai otsagaz batean Gabon zorientsu bat betorkizu, irakurle!...

M.'tar Gr

BANCO DE VIZCAYA

GRAN VIA, 1-BILBAO'N

Legezko dirutza: 100.000.000 lauerleko. Ipiñiriko dirutza 60.000.000 Gerorako dirutza berezia 50.000.000. Diru-etxe onek Banka, Bolsa ta Kanbijo'ko edozein artu-emon egiten dau,

EMOTEN DAUN IRABASIA (EREJITUA)

Noz-gurako affu-emonetan (Cuentas Corrientes)

Eskatuta bertatikoa.....euneko 2

Berarizkoan, orbeko diru ipintietan emoten dana

Diru-iplinletan

Iminiñia iru ilabetian ez atarateko, euneko 3

» sei-ilabetian ez atarateko » 3,60

Iminiñia urtebetian ez atarateko euneko.. 4

Aufexki-kutxan (Caja de ahorros) » 3,50

Zabaldu

an ta emen, kalean eta baserrian, lanegilan eta zure lagun artean

EKIN

Euskerazko asterokoa

Euskal-erriko izparrak

BIZKAYA

Abadiño.

Izpar baltea.

Oregi'tar Kasilda, Trañagotikoa, eleizakoak eta Aita Deunaren onspena artuta Jaunaren besoetan, igaro dan astean, il zan. Emakume ona izan zan ba bera. Alargun Jose, seme-alaba, Pio, Teodoro, Esteban, Bitoriano, Marziso, Maria, Kristina eta gañerako senide gustiai atseka-bean lagundu, ta irakurleai, otuitz bat bere gogoaren alde eskatzen dautsagu.

Gabon-yayak.

Gizadi gustientzat eta batez be umeentzat urteko egunik alayenak, gabon-yayak izaten dira. Tufoi edo gozokie be etxe gustietan ugari izaten dozu ta, umien pozgafia bera izaten da. Egun batzuk auferago dirala, amari ia zeinbat gau igaro bear diran itanduten dautsie. Egun atan bafiz gaba eltzekoan, sutondotik onok atera? An dabiz gozaro, lapiko, kasula, ta baster gustiari begira, ia gero zer urtengo daben yakiten. Otsenek be gabonetan etxeraturten dira. Antxiña ez dala, arto bat, ogi bat eta makalaoa, buztena agirian, eroatea oi zan.

Eduña.

Astronomaok iragafi ala ez dauan ez dakit, baño etzurazko edurtzea bota dabena bai. Lufarentzat oso onurakofa da.

Yayotzak.

Pujana'tar Jaime ta Goikolea'tar Katalinak alabatxo bat Maria Bitoria izenagaz ugutzau dabe. Lizaur'tar Gerbasio ta Urien'tar Tiburzia'k semetxo bat Eusebio izenagaz. Belar'tar Teodoro ta Uriarte'tar Maximina'k semetxo bat Damian izenagaz. Zorionak gustiori.

Mendiola.

Iriarte'tar Roke Josu-lagunak datofen ilaren asieran gogo-iñarkunak Kistobal deunaren baxa eleizan emoteko asmua ei dauko. Mendiola'fak bafiz berari entzuteko pozez beterik ei dagoz. Lenengoz be emoten dira ta, Mendiola'fak ondo gelditu gurako dabe. Ain txukun eleixatxo ori ipinteagaz, irabazi be bai dabe, onetari-ko eleizkizun bat euren alde egitea.

Karabia.

Gotzari ta beste lagunak batzuk karabia atxartean egiteko gertu ei dagoz. Mutilak; bizkor ibili gero, bestela beste batzuk ofetariko asmuetan ei dabiz-da, karea baño lenago, zeuok efeta gelditu ez zaitezten.

Gabon-yayen ondoren, bide bafi ori or izango dozu.

TRAÑA

Mañari.

Izpar atsegingarriak.

Gure aldun zintzoak Estatutoatzaz Madrid'tik bidaldu dautsuebean izparrak benetan dira atsegingarriak! Izpar ofeik dirala-ta, abertzale gusti-joen gogo-bijotzak itxaropen gozoz bete dira. Geure abefi matia, bere askatasun doniaren zati bat lortzeko bidian ikusten dogulako...

Oraingoan zati bat, eta gerokoan beste zati bat... eta... azkenez zati dana, askatasun oso osua... Euzkotafok, egun andi-andijari begira gagoz ba; ta zijo origatik orain eta gero poztu gadixan...

Elizkizunak.

Igandian, emeko Pantzeskatar irugafendafak ilero elizkizunak ospatu ebezan.

Edur-kirolian.

Lengo igandian, Bilbao'tik, neska-mutil piloak etofi ziran, Urkiola-aldean edur-kirolian ekiteko asmuaz, Emeko bitzabalian be txifistadarik asko egin eban; eta asko jolastu ziran.

Eta... notin arein tajua ikusi ezkerroan, edozeñek uste ixaugo eban an ebiltzazanak mutil utsak zirala. Neskatilak be gixon-erara jantzita egozalako. ¡Alako naste-bofasterik...!

Gizona, gixon eta emakumia, emakume ixan biar litzakez beti... Baña gaur eztago lotsarik. Gaur gitxien ikusten dan gauzia «lotsia» da ixan be ta...

¡Otea!

¡Au dok otza! Onan jafai bada, lafi biarko dogu. ¡Ene, ene! Baña tira, onan jafaitu afen be, lafegi ez-kara estutu biar; besterik ezianba, antziñeko atsuaren «efemedijua» egin geinkelako. Belafijak koipe gazijaz ondo-ondo igurtzita gero oyan, eztagi askoren artian, sartu, ta udebafiko eguzkijaren lastan gozo-samufa artu arteragiño antxe bertan egon.

Antxiñako atso «tranposiak» ne-gualdijetan ori egifen ei-eban; eta osasun edefaz eun urteragiño elduta gero, nekez baten il zala, esaten dabe. Beraz, ainbestian ezkara estutu biar, efemediua egin baño...

Gabon-jayak.

Ganian doguz; edo obeto esateko etxian. Jai oneri «sendi-jayak» erestelen jakie. Jai-ofetan, Josu gure Erosle matiarene jayotzaren gomuta go-soak igiñuta, sendikoak, sutondoko bero-atsegingarriak mañe-mañero pilatzen diralako. Gabon-gaba, gabaren gozo!

Gabon-gaba

igabaren gozo! atsegingarri dabena sendi osoa.

Juan ziranak aintzaz ta gagozanok gentzaz, Josu'ren jayotzia ozpatu daigun pozaz.

MAÑARIKO

Erigoiti.

1657

Mayordomu Domingo de Aflaga zan. Diru gora-berene bategaiti ele-zako ugezaba edo patroyari idatzi eutsiezian karta bi, abogadu Mendiola'fak idatzi, ta euretarioko bat Bilbora eroatea be kosta zan sei efel. Beti lez elezan eta kanposantuen egin zirian bafiztute batzuk, baye amar beargin eskatu ta amabi ekafi eutsiezala ta, biri ezeutsien alogerik emon.

1658

Mayordomu Juan de Enzunza zan. Alkate Iñigo de Borika. Semendien 22'gn etofi zan elezea ikusten D. Pedro de Ocio, Kanonigoa. Obispo bafia etofi zan D. Martin Lopez de Ontivero, baye andik laster Valenzia'ko Arzobispo egin euden eta yonan zan.

Alkar-artu.

Goiko ta beko belbildunek alkar artu ei-duzkue. Goikoak goikoak baka'fik erabiliko ei-dituz eta bekoak bekoak, eta saneufiek be igon ein eidituez. Alan dala, auferantzean astelenetan Gernikera doyazanak geyago ordaindu bearko dabe belbile, ta ganera ezin yon izango dire eurrek gure daben belbilen. Egie bada, andie egin dabe, geuri, gabizenoi, ordainduten dogunoi esan barik ori afeleguori egitea.

Edure.

Gitxiten lako edurtzea yausi yaku oingon.